


Betiko istorioa maisu gogor batek azaldua



Clint Eastwood eta James Woods, *True crime* filmean.

ARTXIBOKOA

Filma: Jugé coupable / Ejecución inminente. Estatu Batuak, 1998.
Jatorrizko izenburua: True crime.
Zuzendaria: Clint Eastwood. **Gidoia:** Larry Gross, Paul Brickman, Stephen Schiff. **Argazkia:** Jack N. Green. **Musika:** Lennie Niehaus. **Aktoreak:** Clint Eastwood, Isaiah Washington, Denis Leary, James Woods.
Iraupena: 130 minutu.

CLINT EASTWOOD zuzendararen azken lan sendo eta garrantzak —*Sin perdón*, *Absolut power*, *Medianoche en el jardín del Bien y el Mal*—, miretsi ditugunok zailtasun franko izango ditugu *True crime* hau onartu ahal izateko. Printzipioz, badirudi zinemak behin eta berriro erabili izan duen istorioa dela: heriotza zigorra jaso duen ustezko hiltzailearen ordua iristear da. Azken minutuetan, erloju kontrako borroka basari ekingo dio kazetari batek.

Kazetari hori Clint Eastwood dugu, nor bestela, eta Clint Eastwoodek sorturiko, gauzaturiko, pertsonaia guztien ezaugarriak ditu: bakar-tia izanik, bakardadean ariko da lege, burokrata eta oztopo

ororen kontra. Bere bertuteak bere bekatuak bezain handi-larriak direla, kasik inork ez du konfiantzarik harengan. Ez emazteak, ez abokatuek, ez egunkariko zuzendariak. Ezta hiltzear den horrek ere. Betidanik, *El bueno, el feo, el malo* filmaz geroztik, hori izan da Clinton patua. Bakar. Bakarti. Bakardadean. Inoren leialtasunarik gabe. Clinton ikurra, Clinton patua eta zoria.

Clintek, oraingoan, beste askok zapaldutako xenda urratzen du. Zergatik? Zertarako? Auskalo. Batek daki, Deabruak sikiera jakingo balu...

Egia esaterako, eta horrek gure dudak ezaba ditzake neurri batean, Clinti eta ikusleari berari bost zigortuaren suertea. Beste mota bateko interesak ditu zuzendari eta ekoizle jaunak lan honetan. Zeintzuk? Ba, esaterako, berak antzezturiko kazetariaren pertsonaia, gizarte mota eta maila oso baten salaketa amorratua, denboraren, filmak irauten duen 130 minutu horien, erabilpen arduratsua, nola

edo hala oinazean dagoen jendearekiko elkartasun garrantza eta zinemarekiko konpromezu hautsezina.

Clint Eastwoodek gero eta hobeto, gero eta sendoago, gero eta finago egiten du zinema. Gero eta baretasun handiagoz egiten du lan, sortzen ditu irudiak. Gero eta lehorragoa da bere begirada. ez dio muzin egingo kasik gozoa dirudien amaierari, baina gozotasun horrek badu *blues*-aren samintasuna, jazzaren doinu atsekabetua...

Bai, ikusleak ez du ondo jakingo zergatik aukeratu duen Clint Eastwoodek horren istorio betikoa, pantailan mila aldiz adierazia, ustekaberik gabea, baina seko demonio ohartuko da Clinton maisutasunaz, Clint Eastwooden azken film honen erritmo finaz, bakardade mindu eta epelaz, ironia sikuaz.

Agian, *True crime* ez da guk espero genuen filma. Bada, orde, Clintek sekula ukatuko ez digun hori: zinema puska eder eta bortitza.

..... *Begoña del Teso*

'Gehiegiegi'

Artista: Pedro Guerra. **Lekua:** Bilboko Arriaga antzokia. **Eguna:** Apirilaren 25a. **Jende kopurua:** 1.500 lagun. **Iraupena:** 140 minutu. **Sarrera:** 1.500 pezeta merkeena, 3.500 pezeta garestiena.

BI ORDU luze eman zuen Pedro Guerrak Arriagako agertokian. Zazpi musikarik osatutako banda bikaina zeukan inguruan, pop arloan Madrilgo zuzeneko onenak: Vicente Climent, Gino Pavone, Luis Fernandez, Marcelo Fuentes, Alvaro Perez, Belen Guerra arreba... 34 kantu eskaini zituen Tenerifeko kantariak hiru zatitan: lehenengoa bandarekin, gero berak bakarrik eta taldearekin berriro inoiz amaitzen ez zen azken atalean.

Raíz hirugarren diskoaren aurkezpena egitera etorri omen zen Pedro, baina askoz gehiago eskaini zuen. Hiru urte hauetan lelo pilo bat jenderenganatu du. Horregatik oso erraza zen entzuleriarentzat hitz horiek kantatzea, batez ere emakumeentzat. *Dibujos animados*, *El marido de la peluquera*, *Hazlos reir* —bi aldiz egin zuen, zerrenda luzea agortu ondoren—, *Debajo del puente*, *Contaminame*, *Deseo*, *Sexo*, *Siete puertas*, *Gente sola*, *Moreno*, *Rap/a/duras/penas*... Disko berria ere ongi ezagutzen zuten entzuleek: *Bahía*, *Daniela*, *Raíz*, *Bebes del río*, *Contra el poder*... Edo *Maria* filmeko *Canción de María*.

Gero eta gehiago, gero eta hobeto

Pedroren kontzertuak ez dira besteenak bezalakoak. Erdialdean talde osoa desagertu egin zen, eta kantaria aulki batean eseri zen, gitarra akustiko batez. Eta

hor musika eta poesia nola aurkitu zituen azaldu zigun. Eta handitze prozesu horren kantuen atal txukunak kantatu zizkigun: Eduardo Faluren *Tonada de un viejo amor*, *La mujer que yo quiero*, Silvioren *Te doy una canción*, Oskorriren *Euskalerrian euskaraz* —Rogelio Botanz lagun eta taldekide ohiari omenalditxo—... Jendearen bihotzak etsita zeuden. Eta une horretan —noiz bestela?— Kepa Junkera agertu zen, bien artean *Del Hierro a Madagascar* hunkigarria abesteko. Berriro zoramena non-nahi.

Bi urte lehenago antzeko estasia lortu zuen Guimarko mutilak: bere poesiaren indarra, bihotzeraino helitzeko erraztasuna, Brasilgo edo Kanarietako erritmoak bereganatzeko gaitasuna, mezu baikorrak zabaltzeko maitasuna, dena batu zen berriro entzule guztiak zutik jarri arte, txaloka, dantzan eta irribarre zabal batez aurpegietan.

Gero eta gehiago, gero eta hobeto. Hitz horietan datza mutil honen hobekuntza. Eta badakigu, gainera, agertokian dagoenean egiazko pertsona dela, fidatzekoa. Marcos komandantearen hitzak gogoratu zizkigunean —«haiek gu ikusteko, aurpegiak estali genituen»— benetan ari zela antzeman genion. Hitz gutxitan, gehiegi: soinu eta argi bikainak, puntako banda, 140 minutu, 34 kantu, mila eta bostehun pertsona kantari, zutik eta dantzan, omenaldi ugari —Frida Kahlorena, eraitsigarria—, barruaren kanporatze hori, eromen kolektiboa... Zakilixutek esango zuen moduan, *gehiegiegi*.

..... *Roberto Kribi*